

itzulpena: Josu Landa



Stephane Muller



**Munduko
Poesia
Kaierak**

Stephane Mallarme

itzulpena: JOSU LANDA

 **Susasa** literatura

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.

Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© Stephane Mallarme

© itzulpenarena: Josu Landa

© edizio honena: Susa

2016ko urria

Munduko Poesia Kaierak

bildumaren zuzendaria: Beñat Sarasola

<http://kaierak.com>

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefonoa: 943 83 26 55

Elektroposta: susalit@armiarma.eus

Webgunea: <http://susa-literatura.eus>

Poesiaren historiako izen handienetako bat dugu Stephane Mallarme (1842-1898), askoren iritzian XIX. mendeko olerkigintzaren gailurra. Baiki, bide urratzailea izan zen zentzu askotan, modu agerikoean *Dado kolpe batek* poemak erakusten duen gisara, zeina bertso librearen nahiz abangoardien aitzindaritzat jotzen den. Errima eta konbentzio espazialak bazter utziz, bere horretan kasik objektu artistikotzat jo daitekeen pieza bat konposatu zuen, gerora abangoardistek (Guillaume Apollinaire, Joan Brossa, Joxan Artze) hainbeste jorratutako poesia bisualetako estreinakoetako bat.

Poema hori bada ere ziur aski Mallarmeren ale ikusgarri eta apurtzaileena, guztiz okerra litzateke haren obra horretara mugatzea. Areago, haren obra-ko poema guztiak hartzen ditu kritikak goi mailakotzat, eta ia denen gainean idatzi dira hamaika saio eta interpretazio. Izan ere, Mallarmeren obra zabala bainoago trinkoa da; esanahien multiplikatzeari poema berrien idazketaren bidez bilatu beharrean poemak etengabeko idazketa, fintze, berridazketa bidez bilatzen zuen. Urregintzako langintza bailitzan, azkenetarako haren poemetan hitz bakoitzeko esanahi ugari

sortzen dira, oihartzun segida ia amaiezinekin. Ezagunak dira, adibidez homofonien bidez sortutako esanahi jokoak (*cygne* (zisne) / *signe* (zeinu)) edo metonimia bidez egindakoak (azur/ciel). Mallarmeren obraren erregulartasun eta trinkotasun horren kausaz, oso lan nekeza da hura antologatzea, beti gertzen baitira bazterrean aintzat hartzea ongi merezi duten poemak. Antologia bat egitea definizioz ekintza injustua bada, kasu honetan are injustuago.

Edonola den, muga oro gure eginda ere, antologia hau aski baliagarria da Mallarmeren poesiara gerturatzeko, estreinako aldiz euskaraz gainera. Bertan topatuko ditu irakurleak, arestian aipatutako poema enblematikoaz aparte, *Leihoak* eta *Larrimina*, esaterako, poesia sinbolistako bi poema eredugarri, *Herodias* poema-tragedia bukatugabea eta *Fauno baten arratsaldea* (Paul Valeryren esanetan poesia frantse-seko poema behinena eta Claude Debussyren pieza bat inspiratu zuena), edota *Bere azazkal puruek goian dute onixa* sonetoa, besteren artean Octavio Paz-ek itzuli eta bikainki iruzkindu zuena.

Beste sail batekoak dira miresten zituen pertsonen omenez idatzitako poemak. Omenaldi horiek metonimietan zertzen zituen maiz: Edgar Allan Poeren

eta Charles Baudelaireren hilarriei idatzi zien Poe eta Baudelaire gorestekoa, eta bere etxeko haizemaileei haren emazte eta alaba ondartzeko. Fikziozko pertsonaiei ere omen egin zien baina, *Des Esseintes-entzako prosa* poeman bezalaxe, non Joris-Karl Huysmansen *A rebours (Ile kontra)* nobelako Jean des Esseintes protagonistari idatzi zion. Omenaldi horietan agerian geratzen da sinbolismo frantsesaren lerroa, Baudelairek Poe irakurtzen duenean abiatzen dena nolabait, eta Mallarmeren ondorengo Valeryrekin osatzen. Esan bezala, alimalezko eragina izango zuen haren poesiak gainontzeko herrialdeetan, T.S. Eliot-enganetik hasita, Ruben Dario edota, gurean, Lauaxeta eta Xabier Lizardirenganaino.

Itzal horren eragina ere bestela uler liteke baina. Apollinairek inoiz aipatu omen zuen Mallarmeren ondoren ezin zela gehiago poesiarik egin ordura arteko moldean; halako zedarria izan zen, ezen harengandik aparte ibiltzea beste erremediorik ez baitzegoen, Apollinaireren beraren poesiagintzak erakusten duen moduan. Aldez edo moldez, bada, ezagun da Mallarmeren geriza luze-zabal izan zela oso.

BEÑAT SARASOLA

Agur

Hagun honek, bertso birjinak,
kopa baino ez du desira;
urrunean itotzen dira
petik gora itsas laminak.

Ontziz gabiltza, lagun minak,
nik jada popan dut kadira,
zuen brankan dira erdira
tximista-neguen uhinak.

Horditze ederrak obligatu,
kulunkak ez nau ikaratu,
zut diot agurra isuria

—bakardade, izar, uharri—
oihal honen kezka zuria
merezi duen guztiari.

Zoritxarra

Pertsonen azienda zozotuaren gainez
zeruen eskaleen kima salbaiak ziren
argiduraz jauzitan, gure bidean oinez.

Ibilbide bandera gisa zabaltzen diren
haize beltzek zauritzen zuten mamian hotzez,
orga hatz suminkorrak ildo ziren ediren.

Itsasoa atzera aurkitzeko bihotzez,
ogi gabe zebiltzan, faltan kutxa, pegarra,
ideal saminaren urre limoia hortzez.

Gehientsuenek gaueko desfileetan marmarra,
odol fluxua ikusiz loriazko mozkorrak,
o, Heriotza, aho murritzen pot bakarra!

Porrota ekarri dien aingeru oldarkorra
zeruan zutik datza ezpataren ahoan:
bular eskerdunean gatzatuz gorrindola.

Mina edoski dute ametsen gisakoa,
negar atsegaleen erritmoa oinarri,
ama gora, herria belauniko badoa.

Kontsolatuak dira, ziur eta goigarri;
bazter utzi dituzte ehun kide trufatu,
mentura bihurrien martiri irrigarri.

Negar gatzak mazela gozoak ditu higatu,
amodio berberaz errautsa dute jaten,
destinoak jostakin-arrunt ditu zafratu.

Atabalak bezala kitzikatzen ahal zuten
boz hitseko arrazen zurikeri gupida
kidea sai gabeko Prometeo bailuten!

Ez, purtzil eta mortu idorren zale dira,
dabiltza amorruzko jaunaren zigorpean,
Zoritxarrak dakartza irriak belaunbira.

Maitaleok, zortea duzue hanka gainean!
bi igerilari zuriz lohi blokea uzten du,
uharrez at zaituzte murgildu istilean.

Hartaz, tutu bitxia badu hatsez kemendu,
hurrek, eskuz ipurdi, txarangaren tankeran,
lehertuko gaituzte, irria ezin atzendu.

Hartaz, bular zimela apaintzen duen eran
berpizten du arrosak ezkon adinarekin,
lerdearen distira sorta kondenaberan.

Hezurdura nanoa, luma-bonetarekin,
botadun, zinezko har-ilea galtzarbean,
haintzat den laztura amaigabearekin.

Laidoturik, gaiztoa zirikatu gabea,
ilargi izpiaz jarrai aizto marrantatuak,
hezurretan elurrez, aldez alde barnean.

Tamal-sagaratzailez apal desolatuak,
triste dira mokoka hezurren mendekari,
aiherraren ordezeko herra desiratuak.

Haiez jostatzen dira zenbait eskujokari,
kasta zaharrekoak, putak eta haur tzarrak,
pitzerrak hustu ondoan zarpailak dantzan ari.

Poeta onek amoina eta mendeku garraz,
jainko apalen gaitzari ezin eman arreta,
izenez unagarri eta ergel samarrak.

"Eskapatzen ahal dira balentriez aseta,
"ekaitz arrapo diren zalditxoek moduko
"lauhazka korazatuz abiatu ezin eta.

"Festan garailea guk intsentsuz mozkortuko:
"gorrimenez jantzita dituzte haiek trapuak,
"bufoi-jokalariorik, preso dituzte hartuko!".

Parean dizkiete aurtiki nardaz tuak,
zozo eta ahapeka ostots dute galdatu,
heroiak, lazeria jostariz nazkatuak,
irrigarriki dira kaleargian urkatu.

Larru beltzeko andere...

Deabruak astindu larru beltzeko andere,
gozatu nahian fruitu berri-gaizkileekin
neska hitsa haien azal zulatuan badere,
betebehar maltzurrei tripontzi die ekin:

Sabelean erkatzen ditu pozik bi titi
eta, eskuek oratu ezin duten goieran,
bota motzen zartako goibela du aurtiki
plazeren berri ez duen mihiaren tankeran.

Elefante ero gisa bizkarka dardarez den
gazelaren biluzi izutien kontrara
zain da durduzaturik, kartsuki du miresten,
hortz xaloez neskari egin dio algara.

Biktimaren ohatze diren haren hanketan,
zurda azpian zabal den larru beltza du altxatu,
aho arraro horren sabaia lasterketan
itsas maskorren gisa, arrosa, desolatu.

Leihoak

Gortinen zuri arruntez goiti horma hutsean
gurutzefika handirantz abiatzen den intsentsu
kiratsez, ospitale tristeez nahigabea,
hil hurran maltzurak du bizkar zaharra zuzendu,

herrestan, berotu nahi gabe bere ustelkinak,
baizik ekia dadin harri gainean para,
aurpegi mehatseko hezur-ile urdinak
doaz argi-izpi gosez diren leihoetara.

Ahoa, sukarretan, zeru-urdinaz gose,
—behialako altxorra, larru aratza, gaztetan
hatsean zuen!— orain zikinez ditu ase
urrezko beira epelak pot luze saminetan.

Mozkor, izu bizi da, oliadura, edabe,
erloju, ohe behartu, eztula ahantzirik,
arratsa teila artean delarik odol gabe,
bere begiak, zeruertza argiz bizirik,

zisne ederraz ditu bistan urre galerak
lotan purpura eta lurrinezko ibaian,
kulunkan haien izpi jori eta urrekerak,
oroitzaz beteriko nagitasun lasaian!

Arima krudeleko jendeak du hastio
apetituek duten lorian da iraulkatzen,
zabor hori xerkatzen tematzen da eta dio
hurrei bular ematen dien amari eskaintzen.

Ihesari lotzen naiz leiho guztietara
bedeinkatzen nautenak bizitza ezkutatzuz,
betiereko ihintzek ikuzi beiretara,
Infinituaren goiz garbia urreztatzuz,

Neure burua aingeru! hiltzen naiz, nahi nuke
—beira dadin mistika, dadin artea bera—
birjaio, eramanez ametsa buru truke,
Ederra lilitzen den zero aitzinaldera!

Ondikoz! nagusi da: bere goganbeharrak
aterpe segura ere bihurtu ohi dit gazi,
eta Ergelkeriaren oka egite zakarrak
zero aurrean sudurra ohi dit taparazi.

Bada modurik, o Ni, mindura dakidana,
mamuak laidoztatu duen beira hausteko,
—eternitateraino erori ahal izanda—
luma gabeko hegoz ihesean joateko?

Loreak

Zeru zaharretik urre jauziak lehenbizi
eta argizagien elur eternalenak
aspaldi kopa handiak zenituen bereizi
hondamendiez libre gazte zen lurrarenak,

lepo finez zisneak, gladiolo gorrikara,
erbesteko arimen jainko erramu orria
gori nola goiz-alba presatuen ikara
serafinen behatza bezain hori-gorria,

Hiazintoa, mirtoa izpi maitagarrian,
eme haragi pare arrosaren krudela,
Herodias loretan lilitegi argian,
odol basa eta arraiz ureztatzen duela!

Zitorien klartasun hipa zenuen egin,
hunkizko intzirien itsasoan dardarka
ilargi negartira igotzea zeregin
ostertz hitsen intsentsu urdinean zeharka.

Hossana intsentsu ontzi eta musikadunak,
Gure Ama, hosanna linboon baratzeak!
gau zerutarretan gal daitezela oihartzunak,
begien zoramenak, hodei dirdiratzeak!

O Ama, zure bular zuzen-sendoez hazi
zenituen geroko kopa kulunkariak,
Herio baltsamikoz loreak handiarazi,
bizitzak zimelduta gaitz du olerkariak.

Larrimina

Ez dut nahi zure soina bentzutu gau honetan,
herri baten hobenak barne diren abere,
ezta nire musuko unadura gaitzetan
zure ile lohian ekaitz tristea urratu ere.

Zure ohean galdatuz amets gabeko loa,
urrikien erridau ezkutuetan hegaz,
dasta ditzakezunak gezur beltzen ondoan,
hilek baino gehiago baitakizu ezdeusaz.

Bizioak nau, gaitu, bere antzuaz markatu,
berezko noblezia dut orain birrindua,
zure harrizko altzoan bizi baita bihotza,

ezein krimenen hortzek ez dutena kolpatu,
nire hil-oihalak zurpail, desegin, sorgindua,
bakarrik oheratuz ote naizen hilotza.

Udako tristura

Ekia, hondar gaineko burkide lokartua,
zure ileen urrean bainu goxoaz bero,
zure matela etsaian intsentsuz ihartua
maitezko edaria malkoekin du eho.

Distira zuri horren eztialdi aldagaitzak
—nire musu lotsorrok!— dizu erranarazi:
“Desertu zahar eta palmondo urosen zaintzak
momia izatea ohi digu galarazi!”

Baina adatsa duzu epeleko ibaia,
ezin kenduzko arima beldur gabe ito da ja,
bertan izanen duzu Ezdeus ezezaguna!

Betazal negarretan tindua dut janari,
zeruaren, harrien bihozgabetasuna
emanen ote dion jo duzun bihotzari.

Poemaren eskaintza

Umea dakarkizut Edomgo gauekoa!
zurpail, lumatu, hegal odoltsu-tristekoa,
edontzia lurrinez eta urrez suturik,
beira izoztuetatik, gaurkoz ilun, damurik,
lanpa aingeruzkora aurora da aurtikia.
Palmak! aita horrentzat agertuz erlikia,
aitak irri etsaia entseatzen duela,
lazu da bakardade agor eta ubela.
Sehaska kanta, zure haurraz eta oin hotzen
inozentziaz sortze garratza du jasotzen:
biola-klabezinen oroigai zure hitza,
kolkoa hertsatuko al duzu erhi hitsaz
non andrea darion zuri ezkutuetan
zeru garbiko aireak gosetu ezpainetan?

Herodias

I. Herodiasen obertura zaharra

INUDEA

(Inkantazioa)

Deusez da, istilean haien hego afrusak
hango malkoak miraz nola urre biluzak
gorriari zaizkion ari zafra dorpean,
gure errautsezko eta oparizko dorrea
hauta du Goiz-argiak, armarri hegalduna,
hobi pisutik ihes txori ederrek, luma
beltz hutsalen apeta bakarraz goiz-argian...
A! herri apaldu eta tristeak jauregian!
Plisti-plastarik ez da! Etsitzen da ur hitsa,
zisne ahantzezinak edo lumak bisita
egingo ote dioten: udazkeneko utziak
uretan itzali du miraileko zuzia:
mausoleo zurbilez gaindi zisnea doa
han lumak du murgildu burua, han hondoa
izar baten diamante aratzaren arrazoiz,
nahiz aurreko izar hura ez zen dirdaitu inoiz.

Krimena! sua! argi-haste lehengoa! estira!
Zeru baten purpura konplizezko aintzira!
Gorrizkoen gainean, zabal, hona bitraila.

Ganbera berezia koadro batez, bataila
askoko mendez lepo, urre-ontzi urtuak,
tindu zahartzat dauka behiala elurtua,
bere tapizeria, nakarrezko distiraz,
beren azazkal zaharra Magoentzat desiraz
sibilek ehortzirik begidun plegu alferrak.
Haietako bat, adar izanari eskerrak,
boli hetsiak zuritu duen nire janzturan,
zilar beltzaren zirtez den hegazti-zerura
itxuraz hegan doa mozorroz eta mamu,
baltsamua baitakar, o arrosak! baltsamu,
kandela ufatu peko ohe hutsetik hara,
urre hotzeko lurrina zakuan jiraka da,
lilien ahurtara ilargiari uko
(ezko iraungian lehen hostoa da galduko),
haren zurtoinak eta haren dolu luzeak
edontzi bakarrean malin dirdaiz hezeak.
Argi-haste hegatsak malkoetan herrestan!

Itzal magialaria sinbolozko xarmetan!

Ahots bat, iraganaz ebokazio luzea,
inkantaziorako prest den nirea dea?
Gogoetaren plegu horixketan nehola
herrestan, zaharra, izar intsentsuduna nola,
zaintza hoztuen meta ilunaren gainetik,
bere zulo zahar eta plegu zurrunetik,
bere erritmoz eta dentela garbiz zila,
hil-oihalak baimena etsiz igo dadila
ehun ederretatik distira zahar kukua
gorantz: (o zein urruna deiotan ezkutua!)
Distira zaharra gorri ezohikoen babesaz,
kide gabeko ahots langitua, deuseza,
botako ahal du urrea bere azken dirdirez,
hark, oraino, antifona baitu bertset desirez,
hileta gudu eta agonien tenorez!
Ilunpe beltzen eta isilaren adorez
dena ere itzultzen da iragan zaharrera,
fatidiko, garaitu, nekez, beti-berera,
urmael zaharretako ur etsia dirudi.

Kantatu du, noiztenka funsgabeko, irudi
auhengarria!

ohean orriak pergaminoz,
hain alfer eta hetsia, ez da egina lihoz!

plegu ametsez ez da magiata kario,
ezta muare mortuan sabai hobi-jario,
lokartu ilearen lurrina. Ba al zuen?
Ume hotz, plazer soilez, gordetzen ahal zuen
bere ibilaldia, lili goizalde izoztuz,
arrats tzarrak mingranak zituelarik moztu!
Ilargi adarra, burdin esferan den bakana,
erlojuan, Luzifer dilin pisu daukana,
beti zaurigarria, beti beste orena,
klepsidran negarrezko tanta goibelarena,
bazter, alderrai dabil, bere itzal lausoan
aingeru bat lagun du ezkutuko pausoan!
Errege ordaintzaileak horretaz deus ez daki
aspalditik eztarri zaharra idorra izaki.
Aitak ez daki hori, armetako burdina
islatzen duen glaziar basaz ere ezjakina,
enigmatikoa den, erretxinaz kinoka,
kutxa gabeko hilen mulkoan ditu opa
zilar ilun tronpetak izai zaharretarako!
Zisalpinoetatik noiz itzuli ahalko!
Aski goiz? Dena baita lokamuts eta lorratz!
Azazkalean zeina doan beiretan gorantz
tronpeten oroipenez, zeru zaharrear kalda,
atzamar bat kandela jelosa dezan alda.

Ilunabar tristeko bere gorria abian
gorputzaz sartuko da apaldu argizarian!
Ez ilunabarrezko, bai argi-haste gorrizko,
azken egunekoa non oro den guztizko,
ez zen jakina ordua, triste borrokalari,
aro profetikoa gorriz negarrez ari
haurraz, bihotz baliosa hartua du erbeste
zisne zaharrak hegatsa hartua bezainbeste,
hegatsean begiak gordeta, izandako
hegatsaren larriaz, bere peskizetako
xendra eternalean, dirdaiz etsi izarren
diamante hautatuei begi ematearren.

II. Eszena

INUDEA - HERODIAS

I. Hemen zara! Printzesa-mamua dut ikusi?
Zure hatz-eraztunak nire ezpainetan, utzi
adin ez-jakinean ibiltzeari...

H. Utikan.

Nire ile aratzen uhar horiz tilikan
soin bakartia hozten zait izu-laborriaz,
eta nire adatsa, argizko lokarriaz,
hilezin da. O andrea, hil nazake laztanak
edertasuna ez balitz hiltzea...

Eramana

nau xarmak, isuria profeten goiz ahantziak,
hilzorizko urrunetan jai pozez erantziak,
ote dakit? hemen naiz, inude negukoa,
harri-burdin kartzela sortaren manukoa,
han nire lehoi zaharrak basa mendez ahala,
sartu eta banindoan, esku onik, fatala,
lehengo errege-erreginen lurrin bizigabeen:
nire ikarak ikusi al dituzu artean?
Erbestea dut amets, eta babesten nauen
urmael iturrian, nire lili hits hauen
hostoak ditut kentzen, hondakin higatuak

behatzearen minez, dira beheratuak
lehoiak, isilean, nire ametserian,
nire janzkitik dute ilki nagikeria,
itsas sosegagarri diren nire oinei beha.
Zure haragi zaharren dardarak beheiti behar,
eta adatsen beldurrez zaituzten forma basak
imitatuko ditu nire ileak demasaz,
lagundu, ni ikustera ez zarenez ausartu,
mirailean poliki nazazu orraztatu.

I. Botila itxietako mirra alaia ez bada,
arrosen zaharrari ostu lurrin bafadaz,
herio bertutea nahi duzu, nire umea,
probatu?

H. Utzi usainak, badakizu, inudea,
gorroto ditudala; zuk nahi senti dezadan
nire buru ahulduan horditze betekada?
Nire adatsa urrea izan dadin nuke nahi,
ez pertsonen saminen ahanzturen hedagai
den lorea, betiko belar onez birjina,
metalaren hoztasun antzuei so egina,
dirdira krudeletan eta zuhail hiletan,
zu islatua zara, sortze murru joietan,
haurtzaro bakartiaz geroko armak, kopak.

I. Barka! erregina, adinak zure alde z oztopa,

liburu zahar-beltzaren gisa arima dut uzkaile...

H. Aski! Nire aurrean eutsi miraila,
o mirail!

Ur hotza zure koadro izoztuz unatua,
zenbat alditan, zenbat orenez, penatua
ametsez, zilo barnan izozpeko orriak
bezala xerkan ditut nire oroigarriak,
zuga agertu nintzen itzal urrunen moldez,
baina, ondikoz! arratsez, zure iturrien oldez
nire amets argalean biluza dut begiaz!
Inudea, eder naiz?

I. Astroa zara, egiaz,
baina ilea erori...

H. Geldi zure krimena
bere iturrirantz baitut odoletan hotzena,
keinua itoz, bekatu famatua: a! hitzera
zein deabru ziurrak zaitu pilpira hitsera
jaurti, musura, present lurrinera, badakit?
O bihotza, esku hau, sakrilegioa oraindik,
ustez ni ukitu nahiz, denak dira orena,
dorrean malur gabe bururatuko ez dena.
Herodiasek une izuz begiratua!

I. Garai bitxian zara zeruak libratua!
Noraezean zabilta, itzal bakar, furia min,

zure buru goiztiarra miran izuarekin;
hilezina bezainbat maitagarri betiro,
o nire ume, eta ederra itsuskiro,
eta hainbat...

H. Ez nauzu ukituko?

I. Patuak
zure gordeak nigan balitu gauzatuak!

H. O! Ixo!

I. Helduko da?

H. Argizagi puruak,
Ez entzun!

I. Nolaz, ilun lazturen inguruan,
are bihozgabea den zerbait amets egin,
nolaz, zure graziaz jainkoari galdegin
espero den altxorra! Norentzat da utzia
hersturek hurrupatu distira ez-ikusia
eta zure izanaren ilun hutsa?

H. Neuretzat.

I. Lore ituna, bakarrik hazi eta hunkipentzat
nagi uretan dakusan bere itzala daukala.

H. Zoaz, gupida gorde ironia bezala.

I. Errazu hala ere: o! ez, gaixo umea,
noizko arbuio harroa jaitsiko den unea.

H. Lehoiek zaintzen naute, zeinek ukituko nau?

Ez da giza arrastorik, eskultura naiz nerau,
begiak badizkizut paradisuan galdu,
inoiz zugandik hartu esnea zait ernaldu.

I. Patuari emaniko biktima minkortua!

H. Neu-neuretzat natzaizu loraz, basamortua!

Badakizue, leize jakintsu itsutuan,
ametista jardinok, amaigabe ezkutuan,
urre ezezagunok, zuen argi zaharra
lehen lurraren itzal-loan gorde beharra,
zuok, bitxi hutsetan argi eztingarria
begietan mailegu didazuen harriak,
eta zuok metalok, nire adats gazteari
urrats gotorra, eder fatala ematen ari.
Zu, mende gaiztoetan jaiotako andere,
kobazulo ilunen amarrurako ere,
hilkorraz mintzo zara! Plazer basen lurrina,
janzki kalizetatik biluz taupa irina
sortuko zait hilkorrak berak dioen gisa,
uda zero epelean, dezazun profetiza,
non berez emazteak duen burua agertzen,
han nire izar dirdiren lotsan bainau aztertzen,
hiltzen naiz!

Birjinaren izua maitez eta
bizi nahi dut ileek sortutako ikaretan,

arratsean, narrasti bortxatu gabekoa,
ohean naiz sentituz, haragi alferrekoa,
zure argi baxuen izarniatzeen hotza,
zu kastitatearen garretan, zu hilotza,
izotzez eta elur krudelez gau argia!

Nire ahizpa eternala, zurea bakartia,
lehenerantz da goiti nire ametsa: ni hala,
bihotz sortzailearen gardentasun argala,
betiko aberrian naiz ustez guztiz bereizi
eta guztia, nire inguruan, da bizi
diamante so garbian lasai lotien barna
Herodias isla den mirailen idolatra..

O xarma azkena, bai! sendi dut, naiz bakarrik.

I. Andere, hilko zara?

H. Ez, atso errukarri,
lasai, hastandu zaitez, barka bihotz gogorra,
baina aurrez, nahi baduzu, irriz leiho sarkorraz
zeru serafikoa, hets itzazu berinak,
Eta hastio dut, nik, zeru ederra!

Uhinak

kulunkan dira, urrun; herria non ote da,
Venusen aiher begiz han da zeru okerra,
arratsaren hostailan erreta Venus bera:
harantz ni.

Zuk erranen umekeria dela
baina piztu zuziak, sutxoz ezkoak dezan
arrotz negarra egin urre hutsean zehar
eta...

I. Orain?

H. Aio.

Nire ezpainen lore puru,
gezur diozu.

Gauza gordearen aiduru
edo, zure oihu eta misteriotik lekora,
haurtzaroko hipa goi-ubelduak albora
itzazu, haurrak sendi baitu amets muinean
harribitxi hotzetatik aske dela finean.

III. San Joanesen kantika

Pausa asaldagarriaz
ekia da jarria
berriz da eroria
gori-goria

Ornoetan dut sendi
ilunen hedamendi
denak dira sukarrez
soinu bakarrez

Burua dut jaurtia
zaindari bakartia
sega honen hegaldi
garailez gaindi

Haustura garbiz ditu
gibelera suntsitu
gorputzaren liskarrak
zahar-zaharrak

Barauz da hura mozkor
lotzen zaio egoskor
galduan jauzilari
so garbiari

Pairaezin goian hura
betiereko hoztura
zaitezten goitiarrak
zuek glaziarrak

Makurtuz salbatu nau
hauta ninduen arau
berak argiaz bete
bataio legez

Fauno baten arratsaldea

(Egloga)

FAUNOA:

Ninfok, nahi nituzke betikotu.

Argi da,

haien gorri arinak airean du segida
amets lodietan lo.

Ametsa nuen plazer?

Nire dudak, gau zahar meta, egin du leher
mila aldaxka soilez, zinezko oihan beraz
iraunez, nire baita eskaintzen nuen, helas,
arrosen ments gorena nagusi dadin froga.
Hausnar dezagun...

zure zentzu bikainen opa

diruditenetz zure glosetakoa andereek!

Faunoa, lilura da begi beltz eta hozberez

ihesi, xahuenik, malko iturria nola:

bestea, hasperenez, diozu aurka zaiola
egun beroko haizea adatsean bezala?

Ezetz! joka goiz hotza beroz ito dezala

balditze geldi eta akigarrian gaindi,

xuxurlaz nire flautak urik ez du uzkaile

akordez bustitako basoan; haizea da
bi tutuez kanpotik jariatzen abidan
euri idorrean hotsa hedatu aitzinago,
zimur mugiezin zerumugetan dago
zerura berriz doan inspirazio hatsa,
zeina artifizial, bistan, jabal baitatza.

O, inta lasai baten hegi siziliarrak,
nire arrandiak eki minez suntsi beharrak,
pindar lili azpian, Tazito, KONTA EZAZU:
*"Hemen moztu nituen jeinuaren kalamu
"barne-hutsak; berdura urrunen urre hitsean,
"iturburuei bere mahatsa eskaintzean,
"zaflaka dabil pausuz abereen zuria:
"preludio geldoan xaramela isuria,
"naiadeen, ez zisneen, hegalaldia onik
"edo murgil..."*

Geldirik, oren gorrixkaz gori
zio gabe elkarrekin ziztuz jalgi direnak,
tonu xerkan direnek desiratu himenak:
itzarriko ahal naiz kartsutasun lehenaz,
zutik eta bakarrik, argi-tirain behinenaz,
lili! zuetakoa banu lañotasuna.

Besterik da ezpainek hedatu huts leuna,
musua, ahapetik okerrak segurtatuz,
froga-birjina, nire kolkoak du bermatu
ausiki misteriosa, goi hortz batek sortua;
Aski! sekretuak du lagun mintzat hartua
zerupean ari den ihi biki-zabala:
mazelaren arrea bererantz daramala,
ametz, solo luzez, ederra inguruetan
libertitzeko ustez, sasi nahasmenetan
harenaz eta gure ahaire sinesberaz;
berak amodioaren garaitasun berberaz
suntsitzen du bizkarrez ohiko den ametseta,
edo begi itxiez jarrai saihets hutsetan
lerro zaratatsu bat, alfer, beti-berdina.

Entsea zaitetz, ihes-tresna, Sirinx gaizkina,
nire esperoan zauden lakuetan loratzen!
Ni, nire burrunbaz fier, jainkosez solastatzen
luzaz arituko naiz; jainkoeste pinturaz,
haien gerizan berriz edekiko zinturak:
Hala, mahatsetatik argia xurgatuta,
nire alegiaz kanpo den pena uxatuta,
udako zerurantz dut, irrikor, mulko hutsa
eta, hordi-egarriz, argi-larruan putza,

gaua heldu artean trabes behatzen ari.

O ninfok, pitz ditzagun OROITZAPEN ugari.

"Nire begiz jo ditut lepo hilezin guztiak,

"ihiak zilaturik, errea itoz bustian

"basoko zeruari amorru-heiagoraz;

"biloen bainu ederra ostendu da lekora

"argi eta dardarez, o harri preziatuak!

"banator; nire oinetan, bat eginik (zaurtuak

"bi izanaren gaitzak dastatu langiduraz)

"menturazko beso soil arteetan loguraz;

"osten ditut, askatu gabe, eta banoa

"hegan arrosadira, itzal funsgabekoak

"gorrotatuta, eki lurrinak idorturik,

"non gure jolasa den egunaz bat morturik."

Gurtzen zaitut, birjinen kolera, suz egarri

den nire ezpainetik itzuriz labaingarri

zama sakratuaren plazer basa, o dardaran

tximista! haragia ezkutuki ikaran:

abere oinetatik herabe bihotzera,

ez hain lurrin triste edo malko eroetan behera

heze den inozentzia bazter uzten duena.

"Beldur traidoreen gain, horra nire krimena,

"jainkoek hain nahasi gordetako laztanen

*"mulko astalkatua nukeen atzemanen:
"irri gorria ezkuta bainezake doi-doi
"haien arteko baten plegu alaiak goian
"(atzamar soilaz gordez, haren lumen lañoa
"tinda dadin pizten den ahizparen zartakoan,
"ttipia eta xaloa, gorritu gabekoa):
"Nire besoetatik hiltze lausoz ehoak,
"harrapakina aske da betiko eskergabe
"oraino hordi nindukan hipaz erruki gabe."*

Hainbat gaizto! pozera besteek naramate
nire loki-adarren txirikorden bitartez:
Grina zait, badakizu, purpura, heldua jada,
mingranak oro lehertu eta erleez marmarra;
eta gure odola, hartuko duenaz min,
betiko irriken erle-mulkoan isur dadin.
Errauts-urrez basoa tindatzen den orduan
besta bat berotu da hostaila goibelduan:
Etna! zure artean Venusen ikusgarri
zure laban zituen orpo lañoak jarri,
lo tristea orroaz edo sua nekaldiz.
Erregina dut!

Zigor ziurra...

Arima, aldiz,

hitzez hustua eta gorputz zamatua ere
eguerdi isil harroak egiten ditu bere:
Aski da lo egitea biraoa atzendurik,
hondar harroan etzan, zenbat dudan kutun nik
aho zabaltzea ardo astro ahaldunari!

Aio, bikote; zaren itzalari beha ni.

Adatsa...

Adatsa muturrean suaren garra hegan
hura guztiz hedatzen desiren sartaldean
jarri da (diadema hiltzen, nezake erran)
koroatuz egoitza zaharra kopeta aldean

Baina bizi gorri hau urre gabe iguriki
beti barnekoa den garraldiaren sutoia
jatorrizkoan dadin bakarrean atxiki
begi egiazko edo irriberaren joian

Herói beraxka baten biluzek laidoztea
hatzean su-astroak mugitzen ez baititu
soilik sinplifikatuz loriaz emaztea
buru dirdaitsuaz du balentria konplitu

Errubiez ereinda larrutzen duen duda
zuzi babesle eta alaiaren modura.

Ehortziari topa

Theophile Gautier-i

O gure loriaren, zu, herio ikurra!

Eroaren xurgatze zurpailaren agurra,
ez dut korridoreko esperantza magikoz
urre munstroa pairuz den kopa eskainiko!
Zure agerpen hori ez zait izanen aski:
porfirozko tokian jarri zintudan, naski.
Eskuen errituz dut behar zuzia eraitsi
hilobiko ateen metal lodien aitzi:
Ezin saihets, izan naiz festako hautetsia
poetaren absentzia kantatzeko etsian.
Oroitarki eder honek gakotzen baitu guztiz.
Ofizioaren aintza hain gorria ez balitz,
errautsaren tenore zital eta berdina,
jautsiz harro den gaua pizten duen berinak
itzultzen du heriozko eki hutsaren sura!

Giza sasi urguilua iraitziz du herstura,
hortaz dugu lorios, guztizko, bakartia.

Jendetza urduriak du jada iragarria:
geroko espektroen ilun tristea gara.
Doluen armarrria murru hutsetan barna,
malkoaren laztasun argiaz naiz gogaitu,
bertso sakratu honek ikaratu ez baitu
pasaientetako bat, fier, mutu eta itsu,
zaio ehortzi-oihal lausoari abegitsu,
heroi birjina dugu hilondoko peskizan.
Hitz isilak hirazko haizean dira arizan,
lanbro metak ekarri duen leize zabala,
hutsak Pertsona zuen abolitu behiala:
“o zu, Lurra ote zara, zerumugen gomuta?”
ametsa orroaz; bozak, argia mudatuta,
tokian jostailutzat heiahora: “Ez dakit!”

Nagusiak, urratsaz, begiaren barnatik,
Edenaren mirari inkieta du jabaldu,
azken dartak, boz soilez, iratzartzen ahal du
Arrosa-Lilientzat izen misterioa.
Halabehar honetan zerbait joanki doa?
O zuek, ezazue ahantz uste goibela.
Itzal gabeko jeinu amaigabe itzela.
Nik, ikusi nahi nuke, zure desiren grinaz,
atzo alditxartua, astro horren jardina

emana izan zaigun eginbide idealean,
hondamen trankilaren ondraz iraun ahalean
hitzezko airean den hotsandiko asaldura,
kaliza handi argia, mozkorrezko purpura,
euri eta diamante, begirada gardena
han da, zimelgaitz diren loreetan barrena,
ordu eta egunaren errainuan bakartuz!
Zinezko oihanttoetan egonaldia hartuz,
poeta han da keinu zabal eta apalaz,
bere kargaren etsai, loa dezan galaraz:
bere pausa burgoian ez ahal ditzan goiz-albak
heriotza zaharrez, Gautierrek bezala,
begi sailduak hetsi eta isilik jarri,
jalgi dadin, mendeko bidexka apaingarri,
mingarri oro datzan hobi sendoarena,
gau indartsua eta isiltasun zekena.

Des Esseintes-entzako prosa

Nire oroimenean erori
ezin duzu, hiperbolea!
burdinaz jantzitako hori
sorgin liburua ote da:

Ipintzen dut, zientziapean,
bihotz erneen eresia
nire pairuaren lanean,
atlas, erritu, belardia.

Gure bisaia promenatuz
(biga izan ginen, degit zin)
bazterrak oro liluratuz,
arreba, zure xarmen adin.

Uher da larderia aroa,
zio gabeko zergatia,
inkontzientzia oparoak
sakontzen duen eguerdia.

Ehun ortzadarren guneak,
haiek behar dute baieztu,
uda tronpetaren urrea
aipu duen izenik ez du.

Irla horri aireak dio
bista kargatzen, mira gabe,
loreak zabalik jario,
guretzat guztiz oharkabe.

Hain baitziren neurrigabeak,
nor bedera zen panpinatu,
inguru argiko hutsarteak
lore ez zituen banatu.

Irrits luzeko aintza, Ideiak
hagitz ari nintzen bizkortuz,
irisatu denen ezteiak
eginbide berrira sortuz.

Arreba zentzudun samurrak
ez zuen irriaz harago
behatu, hura entzun makurraz
antzinako arduraz nago.

Liskar Gogoa ohar hadi,
orain isiltzen garenean,
hazkuntza dela lasterregi
lili anitzen kirtenean.

Hegiaren negarraz beste,
gezurrezko jolas artean,
hedadurak dezan berreste
nire estonamendu gaztean.

Amaigabeko zeru-mapak,
oinak ditut haien peskizan,
urrun dio uhin apartak
lurralde hau ez zela izan.

Haurrak estasiari uko;
jakintsu baita bidaietan
Anastase! hitzaz da sortuko
pergamino eternaletan.

Hobiak irri egin gabe,
girorik kanpo, aitasoa,
Pulcherie! izenaren jabe,
gladiolo erraldoian lausoa.

Haizemailea

Mallarme anderearena

Mintzaira baten modura
hegal ukaldian ausaz
bertsogaia libratu da
bizitegi baliosaz.

Usoa hegan behera
haizemailea den haina
zure gibeletik bera
dirdiratu den miraila.

Zein garden (nora jaitsirik
da bihien jazarpena
hauts ikusezin poxirik
horrek soilik niri pena)

Hala ager bedi betan
azkarki zure eskuetan.

Beste haizemailea

Mallarme andereñoarena

Ameslari, nadin urpez
biderik gabe atsegin,
gorde ezazu gexurrez
nire hegala eskuekin.

Ilunsentiko freskura
hegal ukaldiz daukazu
goxoki du zerumuga
kolpe presoz aienatu.

Zorabio! aireak egin
musu handi gisa zirgit,
inori jaioarekin,
ezin jabal edo ilki.

Ba ote paradisu basa
irri estali modura
zure aho ertzetik pasa
betezko plegu zorura!

Urrezko arratsetan geldi
hegi arrosen zetroa,
airaldi hetsia bedi
uhalaren su zentroan.

Ahaire ttipia

I

Nornahi bakar estiran
zisne eta kai ezean
zaharkituaren miran
nire so ezerezean

Hemen da banaloria
ukitu ezin denez altu
sartalde urreen zoriaz
zeru anitz dira ñabartu

Hegiz dabil ahulduta
txori iheskorrak murgil
jantzi zuria kenduta
bozkariotan da hurbil

Zure poz biluz hartara
uhinez bihurtu zara.

II

Hezigaitz bide gertatu
harantz da nire esperantza
goian galdurik zartatu
isilez eta bengantzaz,

Boz arrotza zuhaiztian
oihartzun gaberik doa,
behin bakarrik bizian
entzuten den txoriñoa.

Musikariak ez du onik,
hantxe da duda iraungi
kolko bietatik nondik
hipa txarrena den jalgi

Urratuko da betean
bertan bidexka batean!

[bere azazkal puruek goian dute onixa]

Bere azazkal puruek goian dute onixa,
Larrimina, gauerdiz, zuziez argitua,
arrats-amets ugari errea da Fenixa,
hil-hautsezko anforaz ez dago hornitua.

Saloi hutseko holtzetan ez da ageri ptyxa,
hustasun ozeneko apaintza abolitua,
(objektu soil horretan Hutsak du ondra aixa,
Nagusia Estigian da negarrez blaitua).

Ipar libroz, urre bat, leiho-sare irian,
agian dekoratu horretan hiltzorian,
adarbakar putarka ninfaren kontra sua,

hura, aldiz, mirailez hilik biluzgorrian,
lotzen da koadroaren ahanztura itsuan
tanpez zazpikoaren dirdiraren gorian.

Edgar Poeren hilarria

Eternitatez Bere kautan baita aldatua,
Poetak arrapizten du ezpata lañoez
boz arrotzeko hiltze garailea baino ez
seinale izandako mende ikaratua.

Aingerua entzunda hidra jauzi tzartua,
tribu eleei zentzu puruagoa eraginez,
ore beltzen bateko desohore uhinez
edana zuten puies goraki kridatua.

Kontrako lurra eta hodeia, o lazgarri!
Poeren hilarrian itsutzeko apaingarri,
baxuerliebea ez balitz gure ideien gisako,

hondamen ilunetik jausi bloke trankila,
geroko Blasfemoen hegaldi beltzendako
granittoa zedarri erakusle dadila.

Charles Baudelaireren hilarria

Heriozko ahotik du tenplu ehortziak
estoldatik jario errubi eta lohia
Anubis idolo bat gaiztoki eraikia
garreztatuz muturra, basazko ihausiak,

metxa iluna okertzen du gasaren ontziak
jasaniko laidoen xurgatzaile joria
hil ezin den pubisa bazterrez du gorria
hegaldia at igorri izan du argiontzia.

Gau gabeko hirian zein hostotza idorra
hark bezala ahalko du benedikatu zorra
Baudelaireren marmolez berreseri alferretan

beloak hotzikarez absentziaz du bere,
haren Itzal beraren zainpeko pozoietan
betiere hats hartuz hiltzen bagaitu ere.

Dado Kolpe batek sekula ez du abolituko Zoria

SAR-HITZA

Nahiago nuke Ohar hau irakurriko ez balitz, edota, bertan gaindi ibili eta gero, ahantziko balitz; Irakurle trebeari deus gutxi jakinarazten dio bere barneratzeaz kanpora denik: inozentea, aldiz, durduzarazi egin dezake Poemaren lehen hitzetan begirada pausatu baino lehen ere, ondoko hitzek, paratuta diren bezala, azkenetaraino eramango baitute, eta testuan ez da beste berritasunik irakurketari utzitako tarteak besterik. “Hutsuneek”, bistan denez, garrantzia hartzen dute, hastapenetik harritu egiten dute; bertso-moldeak galdatu ohi zituen, isiltasuna bezalakoa inguruan, harik eta puska batek, lirikoa edo oin gutxikoa, erdi-erdian, orrialdearen herena betetzerainokoan: nik ez dut neurri hori urratzen, barreiatu baizik ez. Irudi batek, beste irudi batzuen segida onartuz, bere oldez hasi eta buka egiten duen aldiro, paperak esku hartzen du eta, oraingoan ez dira, beti bezala, soinuak marra erregularrak edo bertsoa izango — hobeki erran, Ideiaren azpizatitze prismatikoak, agerpenak eta bere partaidetzak dirauen liparra, eszenaratze espiritual zehatz modukoan, leku kanbiakorretan nagusitzen da testua, hari nagusi gordetik hurbil edo urrun, egiantzaren araberak. Buruan hitz multzoen edo hitzen artean diren bereiz-

garriak kopiatzan dituzten zuriune horien probetxu literarioa da, horrela erratea zilegi bazait, badirudiela mugimendua batean zalutu bestean baraxtu egiten dela, silabaka arituz, are hartara behartuz, Orrialdearen ikuspen aldiberekoaren arabera: hura unitatetzat hartuz, bestaldetik Bertsoa edo lerro perfektua ere hala diren bezala. Fikzioa azaleratuko da eta desagertu, laster, idazkiaren mugikortasunaren arabera, tituluak sarrarazten eta segiarazten duen funtsezko esaldi baten geldialdi osatugabeen inguruan. Dena hipotesian pasatzen da, lasterbidez, kontakizuna saihestuz. Gaineratu behar da erabilera hau, pentsamendutik biluzia gibelatzeez, luzatzeez, ihes egiteez, edo bere marrazkiaz, partitura bat bilakatzen dela, nahi duenak ozenki irakur dezan. Zergati nagusiaren, bigarren mailakoen eta albokoen artean den inprimategiko karaktereen diferentzia ahozko emanaldirako garrantzitsua da eta kokapena, orrialdearen erdian, goian, behean, oharatzen du intonazioak goiti edo beheiti egiten duen. Soilik zenbait norabide oso ausart, usurpaketak, e.a., prosodia honen kontrapuntua direnak, oinarritzko egoeran gelditzen dira aurrekaririk ez duen lan honetan: ez da saio ahalketietarako parada dela uste dudalako, baina ez dagokit niri, orrialde antolaketa bereziaz edo bolumenezkoaz kanpo, Aldizkari batean usadioaren kontra gehiegi jardutea, nahiz eta argitalpen hau liberekin ederretarako adoretua, grazios eta gonbidatzailea izan. Honekin batera doan Poemaz adierazi behar nukeen, halarik ere, tradizioa guztiz hausten ez duen "egoera" bat; haren aurkezpena anitz zentzutuan bultzatu, ez dadin inor asalda: aski litzateke begiak zabalarazteko. Gaur, hemendik sortuko den geroa zer izan-

go den asmatu gabe, deus ez edo artea kasik, aise aitortzen dugu entsegu honen parte direla, ustekabean, gure garaian maiteak diren segida berezi batzuk, bertso librea eta prosazko poema. Badakit haien biltzea eragin arrotz baten azpian burutzen dela, hots, kontzertuan entzuten den Musikarenean; hor aurkitzen diren bitarteko ugari Letrenak ere badi-rela iruditu zaidanez, gibelera hartzen ditut. Genero honek, kantu pertsonalaren ondoan sinfonia modukoa emeki-emeki bilakatzen dena, ez dio kalterik egiten bertso-molde zaharrari, zeina gurtzen dudan eta pasioen eta ametsen inperioztat dudan; aldiz, irudimen puru eta konplexu edo adimenekoak diren gai horiek ahalaz (jarraian den bezala) erabiltzeko unea delarik: ez baita arrazoirik haiek iturburu bakarra den Poesiatik baztertzeke.

DADO KOLPE BATEK

SEKULA

EGOERA ETERNALETAN AURTIKIRIK

ERE

HONDORATZE BATEN SAKONETIK ERE

BALITZ
ere

Erroitz

zurituak

bortizki

barreia baleza

makurtze baten azpian
airean balebil desesperatuki

hegala

berea

aldez

aurretik apaldua aireratu ezinez gaixo
eta jarioak estaliz
jauziak arrasetik moztuz

barne-muinean laburbiltzen du

ordezko bela horrek sakontasunean kukuturiko itzala

egokitu arte
hedadura horretara

bere sakontasun irekia itsasontzi baten

kroskoa

karel batetik bestera okertzen delarik

NAGUSIA

jalgia

ondorioak ateraz

gerla piztu zaio

eta

mehatxu baten gisan

Zenbaki bakarra beste bat

dudan dago
besotik hilotza

ezen ez

jokatu

ile urdinduko maniakoak bezala

partida

uhinen izenean

bada bat

hauxe naufragioa

aspaldiko kalkuluez kanpo
adinak ahantzaraziriko maniobra

behiala lemari zitzaion lotzen

oinetan

aho batezko zerumugan

prestatzen da

inarrosten eta nahasten

destino bat eta haizeak

tinkatzen dizkion ukabilkadan

izan ez daitekeena

Izpiritua

hura botatzeko

tenpestaren erdian

zatiketa tolestuz eta harro pasatuz

berea duen sekretutik baztertua

ontziburuaz jabetzen dena

bizar manukorreen da hondoratzen

gizonarena berarena

belaontzirik gabe

ez du inporta

hutsalki izanik

arbasoenetik izanik eskua ez zabaltzea
zainetan
alferrikako begitarkez haraindian

desagertzeak oinordetzan utzia

anbiguoren
bati

geroko deabru antzina-antzinakoa

baititu

bazter ezdeusak

hartara darama

probabilitatearekiko bateratze gorenera agurea

horra

bere umekeriazko itzala

ferekatua eta leundua eta errendatua eta garbitua

uhinak guritua eta ebatsia

ohol artean galdutako hezur gogorretan

itzulipurdi batetik

jaioa

aitatxia itsasoaren tentagarri edo aitatxia itsasoaren kontra

alferrikako asturua

Ezkon Hitzak

zeinetan

ilusiozko oihalak bere antsia ziliportatzen duen

jestu baten mamuak bezala

kordokatuko da

eroriko da

zorotasuna

EZ DU ABOLITUKO

ALEGIA

Proposamen bat

isiltasunerako

hurbileko

akrobaziaren batean

lañoa

ironiaz biribilkatua

edo

misterio

amildua

orroaz

irri-karkailazko eta lazturazko zirimola

amildegiaren inguruan

hura estali gabe

eta ihesi joan gabe

eta bertan kulunkatzen du aieru birjina

ALEGIA

luma bakartia asaldatua

salbu eta

*gauerdiko kapelu bat kausitzen edo doi-doia hunkitzen ez badu
eta geldiarazi
barre-algara goibel batek zimurtutako belusean*

zuritasun zurrun hau

irri-egingarria

*zeruarekin kontrastean
sobera
nornahi
modu ttipian ere
ez markatzeko*

uharriaren printze samina

*heroikoaren gisan orraztatzen da
ezin eutsiz baina barnean atxikiz
bere gizontasun arrazoi ttipiarekin*

oinaztarritan

kezkatsu
pagaburu eta nerabe

mutu

irri

egin

BALDIN

Hegats buruargi eta handikia
bekoki ikusezinean
dirdiratzten da
eta gero itzaleztatu
garaiera polit ilunpetsua
bere sirena bihurturan

pazientzia gutxiko hondar ezkatetz

zorabiozkoa

zutik

zaflakatzeko
garaia

adarkatuez

harkaitz bat

jauregi faltsua
berehala

lanbroetan lurrundua

infinituari zedarri bat
inposatu ziona

BAZEN
izarretatik sortua

IZANGO ZEN

txarragoa

ez

gehiago ez gutiago

axolagabeki baina berdintsu

ZENBAKIA

EXISTITUKO OTE

agoniaz barreatutako haluzinaziotik lekora

ABIATU ETA GELDITUKO OTE

azaldu zelarik ukatua eta hetsia izanki sorturik

azkenik

arrarotasunez hedatutako joritasun zerbaitekin

ZIFRETAN EMANGO OTE

gutxienik bat delako baturaren ebidentzia

ARGITUKO OTE LITZATEKE

ZORIA

Erortzen da

luma

ezbeharraren geldialdi erritmikoa

bere burua ehortzi

jatorrizko hagunetan

ez aspaldi handik jauzi egiten zuen bere eroaldiak tontor bateraino

zimeldua

osinaren neutraltasun berdin-berdinaren ondorioz

DEUS EZ

krisi gogoangarritik
edota
gertakaria baino ez

konplitu zen emaitza baliogabe jendetar guztien
menturan

EZ ZATEKEEN BURURA EMANA
absentziaranzko goititze arrunta

BURUA BAIZIK
egintza hutsala sakabanatzeko bezala azpitik edonori plisti-plasta
zakarki nork bestela
bere gezurraz
fundatua zukeen
galbidea

bazter horietan
bazter lausootan
non errealitate osoa urtzen den

EZPADA

goratasunean

BEHARBADA

toki bat bezain urrun

bateratzen da haratago denarekin

hari adierazitako
interesetik kanpo

komunzki

halako aldapan halako zehartasunak adierazia

sugarretakoa

harantz

behar du izan

Iparra ere den Septentrioa

KONSTELAZIO BAT

ahantzuraz eta zaharkitasunaz hoztua
ez hainbeste

zenbatzen baititu

gainazal betegabe eta goragoko batean

kaskako bat bestearen ondotik

sideralki

osabidean den osozko kontaketa batena

itzarririk

duda-mudan

itzulika

distirant eta pentsaketan

gelditu aitzin

sagaratzen duen azkeneko punturen batean

Pentsamenduek Oro berez dakarte Dado Kolpe bat